

1955-I-29

Bilbon, milla bederatzireun eta berrogeitabost arren urteko Urtarrilla. Ilbeltzaren ogeitabederatzian Euskaltzaindiaren etxean egiten dau Euskaltzaindiak egun orretako deitutako batzarra.

Maipuru: Irigarai jauna. Batzarkide: Mitxelena, Villasante ta Oleaga, euskaltzainak, Lojendio ta Arrue euskaltzain-ordeak, eta Arrutza, Garro ta Erkiaga urgazleak. Etxaide jaunak urrutidazki biotztun baten bidez bere ezin etorria jakin erazo dau.

Araudizko otoitza eginaz gero, adierazoten da Euskaltzaindi onen asmoz Lojendio jaunak "Introducción al estudio de la Literatura Vascongada" gaitzat arturik, itzaldi bat gertu dauala, ta itzaldi ori, Bizkaiko Jakintza-Batzordearen babespean, iragarrita dagoanez Bizkai-Liburutegian gaur izango dala.

Beroneri buruz eta berandu dan ezkeru, asiriko batzar-au biarko iztea erabagi da.

Onegaz eta araudi-otoitzaz amaitu da.

Euskaltzainburu-ordea
A. Irigaray

Zadorlaria
Nazario Oleaga